

# EUSKAL-FÉSTAK ZUMARRAGA-N



## 1899

(EUSKAL-FÉSTEN XVIII.<sup>garren</sup> URTEA)

Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarreak, gure euskara eder, itz-kribu eta musika jatorriztik ditugunak alegiñ guztian gorde eta zabalteko egiñ-pideari beti leyal, aigitaratzen du, Gipuzkoako Diputazio hit goituaren erabakiari jarraiturik, eta bere baimenarekiñ, aurten Zumarraga-n egiñ beu diran Euskal-fésten azaldea, prestaturik ontarako ondoren agertzen diran indar-neurtz eta jostagudak.

## AZALDEA

### IZKRIBATZALLÉEN INDAR-NEURTZEA

Euskal- izkuntza jakindeak zabaltzen sayatzen diran izkribatzalleai lanbide onragarri onetan aurrera ere jarraitzeko limurkarizat, eman-go zaizkate ondorengo sari oek:

1.<sup>ko</sup> LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, euskarazko itz-larri eta edozeiñ probintziko izkeran egintako lanik onenari, adierazten dirala, garbiro, Zumarraga-ko gloriya kondairarrak eta bertako seme argidortarren doayak.

2.<sup>garren</sup> LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, edozeiñ gai, neurri eta euskal-izkera motan jarritako itz-neurtu edo berso moldaera ederrenaren egilleari.

ALDEERA. *Berrogei ta amar pezeta eta bitezarra*

3.<sup>garren</sup> BERROGEI TA AMAR PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, 15-tik 30 urtera bitarteko euskal-irakurlerik onenari, Gipuzkoako izkeran

eta Batzar-epalleak siñalatuko dion beste batean, ala itz-larri edo neur-tuetan.

ALDEERA. *Ogei ta amar pezeta eta bitezarra.*

4.<sup>garren</sup> EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, Zumarrağa-ko pre-mileiza izan zan Ama Birjiña Antiguako ermitaren kondaira, itz-larri ta Gipuzkoako euskal-izkeran obeto egiten duenari.

5.<sup>garren</sup> EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, jostiruditar mol-daerik onena, itz-neurtu edo larrietan eta Gipuzkoako euskal-izkeran egiten duenari, gaya izan litekela ala negargarri nola pozgarri mota-koa.

ALDEERA. *Berrogei ta amar pezeta eta bitezarra.*

6.<sup>garren</sup> DIBUJATZEKO KAJACHO EDO GIS ONTAKOBESTE SARI BATZUEK, ordu laurden batean euskaraz ongyena irakurri eta izkribatzen duten neska eta mutillentzat.

## MUSIKALARIEN INDAR-NEURTZEA

1.<sup>ko</sup> EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, lau gizonek batean kantatzeko moldaerarik onenari, jatorrizko euskaltasun eta besteren antzik-eza dituela.

2.<sup>garren</sup> LAROGEI PEZETAKO SARI HAT ETA BITEZARRA, danboliñ-ban-da osorako egokiena antolatua aurkezten dan zortzikorik jatorrena danari bere otseztietan. Banda osoak izan bear ditu bi chistu-danbo-liñ, chistu-lodi bat eta atabala.

3.<sup>garren</sup> EUN PEZETAKO SARI HAT ETA BITEZARRA, zortziko ori ongi-yena jotzen duen danboliñ-banda osoari.

ALDEERA. *Irurogei pezeta eta bitezarra.*

## BERSOLARIEN JOLASBIDEA

Egingo da Euskal-erriko bersolarien bilkida eta jostaguda bat, ema-nik LAROGEI PEZETA, erdira, bi onenai, au da *berrogei pezeta* bakoit-zari.

## OARKERAK

1.<sup>ko</sup> Indar neurtze oetarako aukeratzen diran lan guziak bialduak izan bear dute korrioaren bidez paper bilgo ziertotu edo zertifikatue-

tan, zuzende onekiñ: SEÑOR SECRETARIO DEL CONSISTORIO DE JUEGOS FLORALES EUSKAROS.—SAN SEBASTIÁN.

2.<sup>garren</sup> Lan guziak bialdu bear dira indar-neurtze oetarako, esan dan eran, datorren Abuztuaren 15-erako.

3.<sup>garren</sup> Lan bakoitzak ekarriko du barrenen paper-bilgo ichi bat, ipiñirik bertan izkribatzallearen izen eta izengana edo lonbrea, non bizi dan agertzen duela.

4.<sup>garren</sup> Musikalarien lanak esamiñatuko dituen Batzar-epallea egingo dute iru maisu euskaldun jakintsu ezagutuak, eta bere erabakidaren kontra alchatzeko ez da eskubiderik izango, ala nola izango ez dan ere izkribatzalléen artean.

5.<sup>garren</sup> Indar-neurtze ontan aurkezteko prestatu nai duten dan-boliñ banda osoai emango zaye saritua izaten dan zortzikoaren paper-irudia aurrez bear dan denborarekiñ, Batzar-epalleak argitu dezan bature dudarik izango balute.

6.<sup>garren</sup> Izkirazko moldaera guziak esamiñatuko ditu Euskal-itz-jostaldien Batzarreak eta sarituak izaten diranetatik batzuek moldizkiratuko dira osto banaketan, beren egilleai ogeina emanik.

7.<sup>garren</sup> Sarituak izaten diran izkirazko moldaera guziak ipiñiko dira Batzarrearen urteoroko Oroimengarrian, jostirudirakoaz kanpora, batzuek emanik beren egilleai, Diputazio chit goitu eta beste batzarreari bezela.

8.<sup>garren</sup> Batzarrearen goarpelariak irakurriko du moldaeren erabakida sari-emaldiko otsandigoan.

3.<sup>garren</sup> Irakurriko dira sarituak izaten diran izki ibuetatik ortarako luziegi ez diranak.

10.<sup>garren</sup> Emango zaizkate sari, bitezar eta osto moldizkiratuak, oek jasotzera aurkezten diran egilleai.

Donostian, 1899-ko Garagarrillaren 21-ean.

### **Batzarrearen izenean:**

ALFREDO LAFFITTE,

Dianagusia.

ANTONIO ARZÁC,

Goarpelaria.

(Diputazio chit goituaren Bilguma-ri aurkeztua, Garagarrillaren 26-ean).

# FIESTAS EUSKARAS EN ZUMARRAGA

**1899**

(AÑO XVIII DE LA CELEBRACIÓN DE ESTOS CERTÁMENES)

El Consistorio de Juegos florales euskaros, atento á su misión de velar por la conservación de la lengua bascongada y la propagación y el desarrollo de nuestra literatura y música peculiares, ha dispuesto, siguiendo el acuerdo de la Excm. Diputación provincial de que las fiestas euskaras correspondientes al presente año se celebren en Zumarraga, formular al efecto los certámenes que aparecen á continuación:

## PROGRAMA

### CERTAMEN LITERARIO

Como modesta recompensa que sirva de lauro y de estímulo á los escritores que se dedican al cultivo de la literatura bascongada, se concederán los premios siguientes:

1.º Un premio de OCHENTA PESETAS Y DIPLOMA al autor del mejor trabajo en prosa euskara y dialecto guipuzcoano, sobre las glorias históricas de Zumarraga y méritos de sus hijos ilustres.

2.º Un premio de OCHENTA PESETAS Y DIPLOMA al autor de la mejor composición poética, escrita en cualquiera de los dialectos del idioma euskaro, con libertad de asunto, metro y extensión.

ACCESIT. *Cincuenta pesetas y diploma.*

3.º Un premio de CINCUENTA PESETAS Y DIPLOMA, al lector de 15 á 30 años de edad, que mejor exprese é interprete la lengua bascongada, en prosa ó verso, tanto en el dialecto guipuzcoano como en otro que le señalará el Jurado.

ACCESIT. *Treinta pesetas y diploma.*

4.º Un premio de CIEN PESETAS Y DIPLOMA al autor de la mejor monografía, en prosa y dialecto guipuzcoano, acerca de la primitiva parroquia de Zumarraga, conocida hoy con el nombre de ermita de Nuestra Señora de la Antigua.

5.º Un premio de CIEN PESETAS Y DIPLOMA al autor de la mejor obra dramática en prosa ó verso y dialecto guipuzcoano, pudiendo ser de género serio ó festivo.

ACCESIT. *Cincuenta pesetas y diploma.*

6.º Varios premios consistentes en ESTUCHES DE DIBUJO Ú OBJETOS ANÁLOGOS para los niños y niñas que mejor lean y escriban en bascuence, durante un cuarto de hora.

### CONCURSO MUSICAL

1.º Un premio de CIEN PESETAS Y DIPLOMA al autor del mejor coro á cuatro voces de hombre, que se distinga por su originalidad y acentuado carácter euskaro.

2.º Un premio de OCHENTA PESETAS Y DIPLOMA al autor del mejor *zortziko* genuinamente euskalduna en sus diseños melódicos, escrito para ser ejecutado por una banda completa de tamborileros, compuesta de dos silbos con *ñun ñun*, *silbote* y *atabal*.

3.º Un premio de CIEN PESETAS Y DIPLOMA á la banda completa de tamborileros que mejor ejecute dicho *zortziko*.

ACCESIT. *Sesenta pesetas y diploma.*

### SESIÓN DE BERSOLARIS

Se celebrará una sesión de improvisadores populares en lengua euskara, adjudicándose OCHENTA PESETAS, por mitad, á cada uno de los dos que más se distingan.

### ADVERTENCIAS

1.ª Todos los trabajos con opción á estos concursos deberán remitirse por correo, en pliegos certificados, con sobre al SR. SECRETARIO DEL CONSISTORIO DE JUEGOS FLORALES EUSKAROS.—SAN SEBASTIÁN.

2.ª El plazo para la presentación de los trabajos espirará el día 15 de Agosto.

3.<sup>a</sup> Todo trabajo contendrá un sobre cerrado con el nombre del autor y señas de su domicilio.

4.<sup>a</sup> El Jurado que ha de juzgar los trabajos musicales estará formado por tres maestros bascongados de reconocida competencia, y su fallo será inapelable, así como el del Consistorio respecto á los trabajos literarios.

5.<sup>a</sup> A las bandas completas de tamborileros que se inscriban para presentarse al concurso, se les facilitará la copia de la obra premiada, con la suficiente antelación para que el Jurado pueda aclarar cualquier duda que se les ofrezca.

6.<sup>a</sup> Todas las composiciones literarias serán examinadas por el Consistorio, y algunas de las que resulten premiadas serán impresas en hojas sueltas, regalándose veinte ejemplares de cada una á sus autores.

7.<sup>a</sup> Todas las composiciones literarias premiadas se incluirán en la Memoria anual del Consistorio, á excepción de la obra dramática, regalándose ejemplares á sus autores y á la Excma. Diputación y otras corporaciones.

8.<sup>a</sup> El Secretario del Consistorio dará lectura del acta en la solemne distribución de premios que se celebre.

9.<sup>a</sup> Se leerán las composiciones premiadas, cuya extensión lo permita.

10.<sup>a</sup> Se hará entrega de los premios, diplomas é impresos expresados, á los autores que se presenten á recogerlos.

San Sebastián, 21 de Junio de 1899.

### **Por el Consistorio:**

El Presidente,  
ALFREDO LAFFITTE.

El Secretario,  
ANTONIO ARZÁC.

(Presentado á la Excma. Comisión provincial en sesión de 26 de Junio).

